

# IRAGARKIA

## **33. ALDIZKARIA - 2009ko martxoaren 18a**

### **II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

#### **2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK**

##### **LIZARRA**

### **2009ko ekitaldirako aldaketa gobernu ordenantzetan. Behin betiko onspena**

Lizarrako Udalak, 2008ko azaroaren 6an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2009ko ekitaldirako aldaketa gobernu ordenantzetan, baita espedientea jendaurrean edukitzea ere hogeita hamar egun baliodunean.

Iragarkia 2008ko 146. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 1ean, baita ediktua ere entitate honen iragarki oholean. Gobernu ordenantza hauek dira:

- a) Txabisketako erabiltzen diren lokalak arautzen dituen.
- b) Ibilgailuak espaloietan barna pasatzeko lizentziak eta eremu publikoetan lekua erreserbatzea, eta zirkulazio murrizketak arautzen dituen.
- c) Sustapen pribatuaren bidez Alde Zaharreko etxebizitzak zaharberritzeko laguntzak arautzen dituen.
- d) Ikastetxeen eraikinetan eta balio historiko-artistiko handia duten eraikinetan egin beharreko obretarako laguntzak arautzen dituen.

Jendaurrean egoteko aldia iraganik, inork ez du erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu. Beraz, ordenantza horietako aldaketa behin betikoz onetsirik gelditu da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.c) artikuluan xedatuarekin bat, eta lege beraren 326. artikuluari jarraikiz bidezko da aldaturiko ordenantza horien testu osoa argitara ematea.

Lizarran, 2009ko otsailaren 3an.-Alkatea, María Begoña Ganuza Bernaola.

**ORDENANTZA, LIZARRAKO UDAL MUGAPEAN AISIARAKO BILTOKI ETA  
TXABISKETAKO LOKALAK ARAUTZEN DITUENA**

Lizarrako Udalaren mugapean gero eta eskaera handiagoa da etxabeak aisialdiko aisiarako tokitako erabiltzeko, Lizarrako udalerriko hirugarren sektoreko merkatuak eta Udalak berak aisialdirako duten eskaintzaren osagarri edo alternatiba gisa. Erabilera horiek batzuetan ez dira herriko bestetarako bakarrik, urte osorako baizik.

Udalak bere egiten du gizartearen, batez ere gazteen, gero eta eskaera handiagoa. Aldi berean, herritarren eta erabiltzaileen beren atsedena eta segurtasuna bermatu behar ditu. Batzuetan ikusi da erabilera hori duten lokaletan ez direla neurri zuzentzaile egokiak aplikatu eta, are gehiago, lokalen edo eraikinen egitura baldintzak desegokiak izanik, arriskua handia dela

Ukitutako bizilagunen eskubideekin batera jardueren garapen egoki eta arduratsua arautzearen prestatu da ordenantza hau.

Gaur egun, jarduera sailkatuei aplikatzen zaien araudiaren esparrutik kanpo daude jarduera hauek. Ingurumenean eragina badute ere -ingurumena osorik hartuta eta, beraz, gizakiaren osasuna ere hor sartuta-, ez da egokia Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren 2.1.p) artikulua hondarreko klausulan sartzea. Dena dela, instalazioak, azalera, potentzia mekanikoa, su karga eta beste parametro batzuk aztertuz, behar bada elkarte gastronomiko gisa sailkatzen ahal dira, eta, orduan bai, horren ondorioz, aipatutako dekretuan eta Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean xedatutako tramitea egin beharrean gertatuko dira.

Ordenantza honetako jarduerak ez dira, izan, industriako edo merkataritzako jarduerak, eta, hortaz, ez dira irekitzeko lizentzia eskuratzeko tramitea gainditu beharreko jardueratzat hartzen ahal, Toki Entitateetako Zerbitzuen Erregelamenduko 22. artikuluan xedatutakoarekin bat (1955eko ekainaren 17ko Dekretua).

Zernahi gisaz, gauza egiaztatua da lokal hauen erabiltzaileek, leku horietan neurri zuzentzaile egokiak aplikatzen ez direnez, traba egiten dietela hurbileko bizilagunei, bereziki gaueko ordu txikietan zaratak eginda, bizilagunak ez baitira ongi pausatzen ahal, eta, are gehiago, segurtasunik eza eta beldurra sortuta, jarduera horiek kontrolatzen ez direlako. Era berean, suteen aurkako neurririk ez izateak bizilagunen eta eraikinaren segurtasunean eragiten du, baina baita lokalen erabiltzaileen segurtasunean ere, zuzen-zuzenean. Hori dela-eta, beharrezkoa da neurri zuzentzaile egokiak ezartzea lehenbailehen eta, lokala erabiltzen hasi aurretik, Administrazioak neurri horiek paratzen direla begiratzea, bere eskuan dituen kontroleko eta poliziako eskumenak erabilita.

Berrikitan, zioen azalpen honen ildoarekin bat, abenduaren 10eko 26/2001 Foru Legeak - Jendaurreko ikuskizunak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 14ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duenak- zioen azalpenean dio josteta jarduera sozialak egiteko lokalek eta instalazioek, sarbide mugatukoek, dakarten arazoari aurre egin behar zaiola, bereziki segurtasun baldintzak, osasungarritasuna eta hirugarrenei egiten zaien traba gogoan izanik. Bide berari jarraitzen dio xedapen zatiak ere; izan ere, aldatutako legeko 1.2 artikulua testu berriak dioenez, josteta edo aisialdi jarduerak egiteko lokal horiek, nahiz eta aplikazio esparrutik kanpo dauden, behar diren baldintza teknikoak beteko dituzte hirugarrenei enbarazu ez egiteko eta pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, bereziki egituren sendotasunari eta instalazioaren funtzionamenduari dagokienez, suteen aurkako prebentzio eta babes neurriek dagokienez eta

osasungarritasun eta higiene baldintzei dagokienez ere; horretarako, behar den udal lizentzia eduki beharko dute.

Horrenbertzez, ordenantza hau sortu da, alde batetik, aisia alternatiboa izateko lekua, gehienbat herriko gazteek eskatzen dutena, bermatzeko (ezin da ahaztu bereziki gazteek eskatua izate hori, bertzenaz beharrezko segurtasuna izan gabe jarriko baitira halakoak) eta, bertzetik, erabiltzaileen beren eta bizilagunen trabak eta arriskuak baztertzeko (behar diren neurri zuzentzaileak hartuz). Jarduera horretan egiten diren arau-hauste guztiengatik erantzunen duen arduradun bat ere izanen da. Hartara, interes pribatuak eta interes publikoa, biak zaintzen dituen aterabide egokia izanen dugu.

Ordenantzaren edukia da behar diren neurri zuzentzailak zehaztu eta eskatzeko; orobat, eskaera prozeduraren inguruko xedapenak eta erantsi beharreko dokumentazioa ezartzen dira, baita haiek huts eginez gero hartuko diren neurriak ere.

## **ATARIKO TITULUA**

### ***Xedapen orokorrak***

1. artikulua. Xedea.-Ordenantza honen xedea da "aisialdiko biltoki" eta "txabiske" deitu jardueri, ireki edo abiatu aitzin, zer neurri zehatz eta geroraezin eskatuko zaizkien xedatzea, horiek ezarri beharko baitituzte.

Orobat, jarduera horiek kontrolatzeko udal tresnak finkatuko dira; lehenik, behar diren lizentziak eskatuko dira, eta bigarrenik, aztertuko dira eskaerak eta, beraz, honelako lokalak ireki aitzin ezarri beharreko neurri zuzentzaileak.

2. artikulua. Definizioak.-Artikulu honetan ordenantzaren xedeko jarduerak zehaztu, deskribatu eta bereizi nahi dira.

1. Biltokia: sarbide mugatuko lokalak dira, jende guztiarentzat irekiak ez daudenak, Hirigintzako araudiak halakoak ezartzeko baimena ematen duen eraikinetan kokatuak -berariaz adierazten ez bada, antzeko erabilerarekin parekatuko dira- helburu kulturalak, didaktikoak, aisialdikoak eta gisakoak gauzatu beharrez jendea elkartzeko balio dutenak. Ezin izanen dira ezarri beheko solairutik goitiko solairuetan.

1. eranskinean heldu da haien deskribapena.

2. Txabiskeak: sarbide mugatuko lokalak dira, jende guztiarentzat irekiak ez daudenak, egitura egokia duten eraikinetako beheko solairuetan kokatuak, abuztuko herriko bestetan aisialdi, jolas eta gisakoetarako jendea elkartzeko balio dutenak. Uztailaren azken astean eta abuztuaren lehen bi asteetan erabiltzen ahalko dira bakarrik, ordenantza honekin bat ematen den baimenaren arabera.

2. eranskinean heldu da haien deskribapena.

# TITULU BAKARRA

## LEHENBIZIKO KAPITULUA

### *Prozedura*

3. artikulua. Lizenziaren tramitazioa.-Oro har, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1982 Legean ezarritako xedapenei jarraikiz arautuko da eta, bereziki, ordenantza honetako aginduen arabera.

1. Eskaera eta ordezkaritza.-Ordenantza honetako 2. artikuluko jardueri ekin aurretik, interesdunek, beren ordezkariaren bidez, behar den lizentzia eskatuko diote Udal honi, eskura jarritako eredu normalizatua erabilita. Horretarako, 1 eta 2. eranskinetan eskatzen diren agiriak ekarriko dira, jarduera nolakoa den eta horrela.

Nortasun juridikorik gabeko batasuntzat hartuko dira eskatzaileak, eta administrazioarekiko tramite guztietan ordezkari bat ariko da, eskaera egin aitzin izendatuko dena. Zuzenbidean onartzen ahal diren bitartekoak erabilita frogatuko du hark ordezkaritza edo, bertzenaz, agertu eta deklarazioa eginda; ordezkariaren izendapena eta honen onarpena jasotzen duen agiria ekartzeak ere balio izanen du, nahiz eta protokolarizatu gabe egon. Agiri hori batasuneko kide guztiek sinatuko dute, eta denen NAN zenbakia agertuko da han.

Jarduketa guztiak ordezkariarekin egingen dira, eta berak adierazitako helbidean jasoko du hark Udalaren egintza guztien jakinarazpena; Udalaren xedapen eta egintzetan aplikatzen ahal zaizkien guztiak egin eta betetzeko konpromisoa eta ardura hartuko du, eta bere gain hartuko ditu horiek ez betetzeak dakartzan ondorioak. Adingabea bada, hirugarren pertsona bat izendatuko da, adin nagusikoa eta kaudimenduna, fidatzaile-erantzulea izan dadin (egitekoa onartzen duela azaldu ondoan), ordezkariari ezartzen zaizkion egitekoak betetzen ez badira ondorioak bere gain har ditzan (nagusiki, kaltea konpondu beharra eta, kasu batzuetan, zehapena). Hori guztia, ahantzi gabe batasuneko kideei ere ondorioak ekartzen dizkiela.

Txabiskeen kasuan, gutxienez jarduera martxan jarri baino hilabete bat lehenago egingen da eskaera.

2. Instrukzioa.-Aitzineko atalean adierazitako agiriak aurkeztu ondoan, espedientea tramitatuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatuarekin bat.

3. Ebazpena.

3.1. Bada, Udaleko zerbitzu teknikoek eskaera eta dokumentazio teknikoa azterturik eta behar diren errekerimenduak egin ondoan, eskatutako lizenziari buruzko ebazpena emanen du Udalak, udal planeamenduan ezarritako hirigintza erabilerari egokitzen ote zaion eta erantsitako dokumentazioko neurri zuzentzaileen planteamendua egokia ote den erabakiko du. Neurri osagarriak ere ezartzen ahal ditu jarduerak behar bezala egin daitezen.

Udaleko teknikariaren ustez, higiezinaren kontserbazio egoera aztertuta, lokalak segurtasun akatsak baditu (eta 80 urtetik gorako eraikin guztietan), lokalaren eta, hala behar badu, eraikinaren

egituraren segurtasuna eta sendotasuna frogatzen dituen ziurtagiria, teknikari eskudun batek egina, eskatuko zaio eskatzaileari; lokalaren jabeak eskatuko du ziurtagiri hori egiteko. Hala ez bada, edo eskatzen den ziurtagiria aurkezten ez badu, ezetza erranen zaio eskaerari.

Lizentzia horretarako baldintza izanen da xedatu diren neurri zuzentzaileak egiazki xedatu edo bete izana.

3.2. Txabiskeak direnean, artikulua honen arabera lortutako lizentziak honako baldintzak ezarriko ditu lokala erabili ahal izateko: erantzukizun zibileko aseguru hartu dela eta prima ordaindu dela erakusten duen frogagiria aurkeztea eta neurri zuzentzaileak benetan aplikatzea; Udaleko teknikari eskudunak egiaztatuko du neurriak ezarri diren, eta haren ikuskapen txostena eta aseguruaren frogagiri hori nahiko izanen dira, bertze tramiterik gabe, txabiskea erabiltzeko. Ikuskapen txostenak erraten badu neurriak ez direla aplikatu edo aseguruaren frogagiriak ez badira aurkezten, akatsa zuzentzeko eskatuko da behin, eta hori bete ezean lizentzia baliogabetuko da.

4. artikulua. Biltokien funtzionamendua.

1. Arau arrunta: jarduerari ekin aurretik, lizentzian zehazten diren neurri zuzentzaileak ezarri direla adierazten duten ziurtagiriak aurkeztuko ditu ordezkariak, teknikari eskudunak izenpeturik.

Administrazioak bisitaldiak egiten ahalko ditu, egiaztatu beharrez instalazioak bat heldu direla titularrek aurkeztutako agiri teknikoekin eta emandako lizentziak dioenarekin.

Lokaleko instalazioak bat heldu badira, Administrazioak funtzionatzeko baimena emanen du.

2. Arau berezia: ordenantza honek indarra hartzen duenean herrian lehendik diren lokalen kasuan, ordenantza honetan eskatutako baldintza teknikoak betetzen badituzte eta aplikatzekoa den gainerako legedian eskatutako neurri zuzentzaileak badituzte, teknikari eskudunak sinatutako eta behar bezala ikus-onetsitako ziurtagiri teknikoak aurkezteko eskatuko da, bertzerik gabe. Hori eginez gero, beharrezko tramiteen ondoan (bertzeak bertze neurriak egiaztatzeko ikuskapena eginik, komeni bada), lizentzia emanen da eta jarduerari berehala ekiteko aukera izanen da.

Aipatu ziurtagiriak aurkeztu ezean, edo lokala bat heldu ez bada eskatzen ahal diren neurriekin, ordenantza honetako 3. artikuluan xedatutako lizentzia tramitatu beharko da.

5. artikulua. Txabiskeendako araubide berezia: jarduera hau jarraia ez denez, eta aurreko artikuluetan lehen instalaziorako xedatutako tramitazioaren aplikazioa egin beharko bada ere, urte bakoitzeko besten aitzin eta, betiere, hilabete baino lehenago beranduenez, ikuskatzera etortzeko eskatu beharko zaio Udalari. Horrela ikusiko da jatorrizko lizentzian eskatzen diren neurri zuzentzaileak hartu ote diren, eta bertze edozein ezartzen ahalko da araudi aplikagarrietako eskakizun berrien arabera. Ikuskatze bisitaren txostena positiboa bada, berritzeko lizentzia emanen da.

6. artikulua. Bertzelako baimenak: ordenantza honetako baimenak ez du zerikusirik dagokion araudi sektorialaren arabera eskatzen ahal den bertze edozein baimenekin.

## **BIGARREN KAPITULUA**

## ***Xedapen teknikoak***

7. artikulua. Ordenantza honetan adierazten diren jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak honen 1. eta 2. eranskinetan daude.

8. artikulua. Aplikatzeko diren arau sektorial desberdinek eskatutako baldintzak beteko dituzte eranskinetan sarturiko jarduerak. Arau aldaketa egonez gero, aplikatzekoa den araudi berriko determinazioetara egokituko da jarduera, eta horretarako lizentzia berrikusteko eskatuko da.

## **HIRUGARREN KAPITULUA**

### ***Administrazioaren polizia lana***

9. artikulua. Ikuskapenak.-Lizarrako Udaleko langile eskudunek -ikusatzeko eta egiaztatze lanetarako izendatuek- egiten dituzte ikuskapenak, eta bere lanean agintaritzaren agenteen maila izanen dute. Ikusatzeko eta egiaztatze lan horiek Lizarrako Udaltzaingoko kideek ere egiten ahalko dute.

Interesdunek lagundu egiten dute ikuskapena egiten denean: ikuskatzaileei lokaletan sartzera utziko diete, inolako trabarik egin gabe, eta betiere behar duten laguntza emanen diete.

Lizentzia eskatu eta eskuratzeak berarekin dakar lagundu behar hori onartzea eta hori egiteko konpromisoa hartzea, artikulua honetan ezarri bezala.

10. artikulua. Errekerimendua eta ixtea: ordenantza honetako edo aplikatzekoak diren bertze arauetako xedapenen bat bete ez dela ikusiz gero, titularrei errekerimendua egiten zaie, epe zehatz batean huts hori konpon dezaten; epe hori iragan eta titularrek ez badute frogatzen errekerimendua bete dutela, administrazio honek, beharrezko tramiteak egin ondoan, lokala ixteko espedientea abiaraziko du.

Auzoei behin eta berriz traba egiten zaiela egiaztatzen bada edo pertsonen segurtasuna arriskuan badago, sorburua lokalaren barrenean nahiz kanpoan egon (azken kasu honetan, jakina, arazoa lokalaren jarduerari lotuta dagoela frogaturik), Udalak, kautelazko neurri gisa, lokala zuzenean ixten ahalko du, gertaerak egiaztatuta eta alde zuzeneko errekerimendurik gabe.

11. artikulua. Zarata arloko arau-haustea.-Jarduera bakoitzerako ezarritako zarata mugen gaineko arau-haustea ekainaren 6ko 135/1989 Foru Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira; izan ere, dekretu horren bidez ezarri ziren zarata eta dardarak sortzen dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak. 60,10,15etik 120,20 eurora bitarteko zehapena izanen da arau-hauste arinentzat, 120,21 eurokoa larrientzat eta 240,41 eurokoa oso larrientzat.

12. artikulua. Jarduera aldaketa.-Delako jarduerarako ezarritako mugetako bat iragaten baldin bada, eta hori dela-eta bertze jarduera multzo batean katalogatzen ahal bada, dagokion araubide teknikoa aplikatuko da. Halakoetan bertze lizentzia bat eskatu beharko da, egiten den jarduerarekin bat heldu den lizentzia, hain zuzen ere. Lizentzia hori eskatu eta ebatzi arte, eta zein den kasua, funtzionatzeko baimena eman edo irekitzeko lizentzia eskuratu arte ez da jarduera bakar bat egiten lokalean.

13. artikulua. Egiletza eta ardura.-Zehapen prozedura abiatzean eta zehapena ezartzean, lizentzia eskabidean ordezkari gisa aurkeztu den pertsona agertuko da, eta hari berari galdatuko zaio egindako kaltea konpontzeko edo legezketasuna itzultzeko. Adingabea bada, kontzeptu horiengatiko erantzukizuna eskabidean adierazten den fidatzaile-erantzuleari galdatuko zaio. Horrek ez du deusetan galarazten ordezkariak edo fidatzaile-arduradunak, oihartzun gisa, batasuneko kideen aurka bertzelako egintzei ekitea.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Arau hauetan ezarritako aginduak ordenantza honek indar hartzen duenetik aitzina paratzen diren biltoki eta txabiskeei ez ezik, lehendik zeudenei ere aplikatuko zaizkie, eta, beraz, indar hartzen duenetik hasi eta bi hilabeteko epean, beren egoera arautu beharko dute hemen aipatzen diren aginduen arabera. Txabiskeak salbuespena izanen dira, haien lizentzia eskatu behar bada ordenantza honen berariazko ataletan xedatutako epean.

Eragozpenak behin eta berriro sortzen dituztela egiaztatuz gero, ez da baimenik emanen lokal horiek erabiltzeko, eta interesdunek itxi beharko dituzte. Hori bete ezean, Udaltzaingoak nahitatezko betearazpenari ekinen dio.

### **1. ERANSKINA**

#### ***Biltokia***

##### ***Nahitaez bete beharreko baldintzak***

- 1.-Sareko ura, edatekoa.
- 2.-Argindarra.
- 3.-Suteei aitzintzeko neurriak, indarra duen araudi sektorialari jarraikiz.
- 4.-Bainugela. Gutxienez ere, 1,50 metro karratuko gelatxoa izan beharko du, komunontzia eta konketa izanen dituen.
- 5.-Ez dira zarata muga hauek gaindituko: 30 dB (A) etxebizitzetan, 45 dB patioan eta 50 dB karriketan; isolamendu akustiko egokia eskatuko da.
- 6.-Erantzukizun zibilaren aseguro poliza sinatzea.

##### ***Debekuak***

Lokalaren barrenean plastikoa, kartoia, koltxoia edo su hartzen eta hura hedatzen laguntzen ahal duten bertzelako gaiak pilatzea.

Ez da sukaldarik izanen.

Aurkeztu beharreko agiri teknikoen edukia.

Proiektu tekniko ikus-onetsia, non deskribatuko baitira egingen diren obrak eta lokalak izanen dituen ezaugarriak, behin egokitzapena egin eta gero.

Txostena, baldintzen pleguak, planoak, aurrekontua eta segurtasun zein osasun azterlana ere aurkeztuko dira.

## **2. ERANSKINA**

### ***Txabiskeak***

#### ***Nahitaez bete beharreko baldintzak***

1.-Argindarra.

2.-Suteei aitzintzeko neurriak: CO<sub>2</sub>ko itzalgailua izanen da, koadro elektrikoaren ondoan, eta balio anitzeko itzalgailuak, 21A-113B eraginkortasuna dutenak; 1,20 k eragile itzalgarri, azalera erabilgarriko 10 metro karratuko zati bakoitzeko.

3.-Seinalizazioko eta larrialdietako argiak paramentuan berean eta irteerako atearen gainean.

4.-Ez dira zarata muga hauek gaindituko: 30 dBA etxebizitzetan, 45 dBA patioan eta 45 dBA karriketan.

5.-Erantzukizun zibileko aseguru poliza sinatzea.

#### ***Debekuak***

Lokalaren barrenean plastikoa, kartoia, koltxoiak edo su hartzen eta hura hedatzen laguntzen ahal duten bertzelako gaiak pilatzea.

Ez du sukaldetik izanen, salbu eta txabiskearen erabiltzaileak adinez nagusi badira, orduan erabiltzen ahalko baitute hiriko etxebizitzetan ohi diren sukaldeen luze-zabal berdintsuak dituen.

Lokalean ezin izanen da merkataritzako inolako jarduerarik edo salmentarik egin.

#### ***Aurkeztu beharreko agiri teknikoen edukia***

Ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1.-Lokalaren banaketa agertzen duen planoak, suteen aurkako neurri zuzentzaileak adierazten dituenak.

2.-Lokalaren azalera

3.-Erabiliko diren elementuen eta instalazioen deskribapena.

4.-Honako konpromiso hau: jarduerari ekin baino lehen, aseguru polizaren agiria eta, aseguruak indarra duela erakusteko, primaren ordainagiria aurkeztuko dira.

**ALDAKETA, IKASTETXEEN ERAIKINETAN ETA BALIO HISTORIKO-ARTISTIKO  
HANDIA DUTEN ERAIKINETAN EGIN BEHARREKO OBRETARAKO LAGUNTZAK  
ARAUTZEN  
DITUEN ORDENANTZAN**

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da Udalak ezartzen dituen laguntza ekonomikoak arautzea, Lizarran, irakaskuntza arautuko ikastetxeen eraikinetan eta balio historiko-artistiko handia duten eraikinetan egiten diren obra mota guztietarako.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Laguntzak bakarrik aplikatuko dira irakaskuntza arautuko ikastetxeetan eta/edo HAPOaren edo BBBBaren xedapenen arabera balio historiko-artistiko handia duten eraikinetan egiten diren obretan, Lizarrako hirian baldin badaude.

3. artikulua. Baldintza orokorrak.

Jarduketa eta obra guztietan bermatu behar da teknikaren eta eraikuntzaren aldetik bat heldu direla eraikinaren kontserbazio egoerarekin, araudiak, planeamenduak eta aldi bakoitzean aplikatzen ahal diren ordenantzek xedatzen dutenari lotzen zaizkiola eta eraikinaren erabilera, segurtasuna eta kanpo estetika hobetzeko egiazki balio dutela.

BBPBaren esparruaren barnean dauden eraikinen fatxadei dagozkien jarduketak direnean, laguntza hauek biltzeko nahitaezko baldintza izanen da berreskuratzea fatxadetan jatorrizko diseinu edo tratamenduak eta kendu edo egokitzea eraikinaren estetikarako desegokitzat jotzen diren elementuak edo BBPBaren araudia betetzen ez dutenak (pertsianetako kaxak, fatxadetako kableak, kartelak, idazkunak, markesinak, etab.).

4. artikulua. Udalaren laguntza motak.

Aipatu baldintzak betetzen dituzten obrek hartzen ahalko dute Udalaren laguntza, bertze laguntza batzuk, hala nola Nafarroako Gobernuarenak, eskatu ala ez.

Laguntzak honelakoak izan daitezke:

a) Lizentzian zenbat ordaindu den eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) dela-eta, horren pareko diru-laguntza.

b) Laguntza bereziak, hitzarmen bidez.

5. artikulua. EIOZaren pareko diru-laguntza.

2. artikulua aipatzen dituen eraikinetan egiten diren obrek EIOZaren pareko diru-laguntza bilduko dute, aurrekontu arruntean horretarako bereizten den kontusailaren kontura, baina horrek ez du erran nahi bertzelako baliabideak jarriko ez direnik horretarako, komenigarritzat jotzen bada; betiere, urteko ekitaldian higiezin berean bertzelako zaharberitze lanik egin ez bada.

Hasiera batean, onuradunek dagozkien zergak eta tasak ordaindu beharko dituzte.

Laguntza hauen onuradunak izateko, obren sustatzaileek, aipatu baldintzak betetzeaz gain, eskatu eta behar den dokumentazioa ekarri beharko dute. Laguntzak obrak bukatutakoan izanen dira behin betikoak, eta orduan jasoko. Lehenago ikustaldia egingen zaie eta azken adostasun txostena egin beharko da, espedienteko baldintzak eta baldintza orokorrak bete ote diren frogatzeko.

Ez zaie laguntzarik emanen Udalaren zordun izateagatik premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sarturik dauden partikular nahiz entitateei".

6. artikulua. Laguntza bereziak hitzarmen bidez.

Zaharberritze, legengoratze, berritze, konpontze, moldatze edo apaintze lanetarako jarduketa bereziak egiteko hitzarmenak sinatzen ahalko dira, eta horiek zabaltzen ahalko dira erabilera publikoko ekipamenduetara, ordenantza honetan aurreikusten diren laguntzekin konbinatuz, baita jarduketa horietan parte hartuz ere baliabide ekonomiko berezien bitartez edo material, teknika edo jende aldetik eskura diren baliabideen bitartez.

7. artikulua. Laguntzak galtzea.

Ordenantza honetako baldintzak eta beharkizunak betetzen ez badira eta, gainera, edo aurkeztutako dokumentazioko edozein datu faltsutuz gero, espedientearen gaineko udal laguntzak deuseztatu eta kenduko dira.

8. artikulua. Laguntzen tramitazioa.

Laguntzak Lizarrako Udalaren Erregistro Orokorrean tramitatuko dira, eta horretarako ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

a) Obra lizentziaren eta laguntzen eskabidea, eta hartan adieraziko dira obra mota, banku entitatea eta, diru-laguntzak zer kontutan eskuratu nahi diren, haren zenbakia, baita obrak egiteko epea ere.

b) Jabearen edo komunitatearen ordezkariaren NANaren fotokopia, edo, horrela behar badu, eskatzen duen entitatearen IFZa.

c) Eskatzailea norbaiten ordezkaria bada, horren egiaztatzea.

d) Egin beharreko obrak deskribatzeko txostena, materialen kalitatea eta guzti.

e) Gaur egungo egoeraren krokisa eta proposatutakoa, ahal dela akotatua.

f) Obraren aurrekontu zehaztua, neurketak, kalitateak, prezio unitarioak eta guzti. Aldiz, proiektu teknikoa eta obra bukaerako egiaztatzea beharrezkoak dira obrek honelakoei eragiten dietenean:

-Eraikinaren egiturari: habeak, zutabeak, harlauzak, karga-hormak...

-Eraikinaren fatxadei: bao berriak irekitzea, fatxadaren osaketan funtsezko aldaketak eragitea...

-Etxebizitzaren barneko banaketari: tabikeetan funtsezko aldaketa, gelen eta bainugelen kokalekua...

g) Udaleko zerbitzu tekniko eskudunek edo haiekin parekatzen diren zerbitzu eskudunek eska litzaketan agiri osagarriak.

9. artikulua. Udalaren baliabide ekonomikoak.

Eskatzen diren laguntzei erantzuteko, Udalak behar den kontusaila sortuko du urteko aurrekontuetan. Kontusail hori aski ez bada eskatutako diru-laguntzei aurre egiteko, behar dena sortuko da hurrengo ekitaldiko aurrekontuetan.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

2. artikuluan aipatutako eraikinetan 2008ko ekitaldian egindako obregatik diru-laguntza eskatzen ahalko da. Diru-laguntza hori ere EIOZaren pare izanen da.

## **AZKEN XEDAPENAK**

Lehenbizikoa.-Ordenantza honen interpretazioa Lizarrako Udalarena da ez bertze inorena.

Bigarrena.-Udalak obrak behar bezala egiten direla begiratzen ahal du noiznahi.

Hirugarrena.-Ordenantza honetan ezarritako diru-laguntza bateraezina izanen da gauza bera egiteagatik Udaletik eskuratzen den bertze edozeinekin. Hala izanez gero, onuradunak hautatu beharko du zein hartu.

Orobat, kontuan harturik diru-laguntza publikoak ez daitezkeela inoiz irabazpide izan, gauza bera egiteko bertze diru-laguntza batzuk hartzeak ekartzen ahal du udal diru-laguntza murriztea edo haren zenbatekoa itzuli beharra.

Laugarrena.-Ordenantza honek behin betiko onespena argitaratzen denean hartuko du indarra.

## **ORDENANTZA, IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARNA PASATZEKO LIZENTZIAK ETA EREMU PUBLIKOETAN LEKUA ERRESERBATZEA, ETA ZIRKULAZIO MURRIZKETAK ARAUTZEN DITUENA**

### **LEHENBIZIKO KAPITULUA**

#### ***Arau orokorra - Pasatzeko lizentziak***

1. artikulua.

Bi gupil baino gehiagoko ibilgailuak erabilera pribatuko lokal edo guneetara edo haietatik espaloietan edo oinezkoen erabilera publikoko guneetan barna pasatzeko, beharrezkoa izanen da Udalaren lizentzia edukitzea ("pasatzeko lizentzia", laburki).

#### ***Tokia erreserbatzeko lizentziak***

2. artikulua.

Orobat, Udalaren lizentzia beharko da eremu publikoetan edo erabilera publikoko lurretan denbora mugarik gabe edo gau eta egun tokia gordetzeko, helburua zamalanak egitea bada, edo jendea eta bezeroak hartu edo uztea, edo antzeko helburuak badaude (laburki, tokia erreserbatzeko lizentzia), establezimendu edo jarduera jakin batzuen mesedetan.

Horiek horrela badira ere, Udalak, bidezkoztat jotzen badu, zenbait tokitan aparkatzeko debekua ezar dezake, bai interes publikoko arrazoiengatik, baita hainbat lokal, jarduera edo sektore toki haietaz balia daitezen ere.

3. artikulua.

Oro har, Udalaren esku dago tokia erreserbatzeko nahiz pasatzeko lizentzia ematea, eta ordenantza honetan aipatzen da noiz ukatuko den lizentzia eta zein diren hura emateko baldintzak.

### ***Lizentzia eskuratu beharra***

4. artikulua.

Jende edo entitate publiko nahiz pribatu guztiek behar dituzte arestiko lizentziak, eta haien tasa, eskubide eta eginbeharren menpe geldituko dira.

Lizentzia emateko eskumena Alkatetzarena da, informazio batzordeek proposaturik, hala behar badu.

### ***Debeku orokorrak***

5. artikulua.

Espresuki debekaturik dago ondotik zehazten den hau:

1.-Gailu finko edo mugikorrek paratzea erabilera publikoko bide edo eremuetan, edozein motatako ibilgailuei sarbidea edo zintarrietako igoera errazteko asmoz. Bidezkoztat hartzen den kasuetan soilik onartuko da pasabidea edo zintarri oketsa paratzea, betiere ordenantzako baldintzetan, eta hura kendu eta lehengoratuko da lizentzia amaitzen denean.

2.-Pintura, errotulu, seinale edo adierazpen suerte guztiak, grafikoak izan edo bertzelakoak izan, baldin eta, tokia erreserbatzeko nahiz pasatzeko lizentziarik izan gabe, aipatu lizentziek aparkatzeko ezarri ohi dituzten mugapenen ordezkio izan nahi badute edo mugapen horien gainean oker egitera bultzatzen badute.

3.-Ibilgailu erabiltezinak, gurdiak edo bertzelakoak uztea lokalen sarreraren parean edo inguruetan, aurreko atalean zehazten den asmo berarekin.

Izan daitezkeen bertzelako egoerez gain, hasiera batean ibilgailu edo gurdi erabilteztintzat hartuko dira egoera fisiko edo mekanikoaren aldetik funtzionatzeko maneran ez daudenak, beren ezaugarriak direla eta hirirako erabilgarriak ez direnak eta zirkulazio baimenik ez dutenak edota Udalaren era guztietako zerga-tasak ordaintzen ez dituztenak.

Aipatu kasu guztietan, udal zerbitzuek eraman, kendu edo ezabatzen ahal dituzte debekaturiko lanabes, seinale eta gainerakoak, aldez aurretik errekerimendurik egin beharrik izan gabe, eta udal

biltegian altxatu. Hortik eragindako gastuak, zertarako jarri ziren, jarduera haiexen titularraren bizkar geldituko dira.

Era berean, zehapen espedienteak edo zerga iruzurrekoa tramitatu ahal izanen da, eskubideak behar ez bezala erabiltzeagatik nahitaezko lizentziarik izan gabe.

## **BIGARREN KAPITULUA**

### ***Pasatzeko lizentziak - Denendako betebeharrak***

6. artikulua.

Pasatzeko lizentzia nahitaezkoa da ordenantza honen 1. artikuluan adierazitako oinarrizko kasuan, nahiz eta hura baliatzeko ez den eskatzen pasagunean edo parean aparkatzeko debekua, bai trafiko arauak sektorean gelditzea edo aparkatzea debekatzen dutelako bai erabiltzen ez delako edo bertze arrazoi batzuegatik.

Ibilgailuak konpontzeko tailerren edo automobilaren inguruko bestelako zerbitzuak ematen dituzten kasuan, pasatzeko lizentzia behar badute, hura obra eta jarduera lizentziekin batera eskatu beharko dute.

Eskatzen diren agiriak

7. artikulua.

Pasatzeko lizentziak eredu ofizialeko eskabidea baliatuz eskatuko dira, eta honako agiri hauekin batera aurkeztuko dira:

1.-Lokal edo eremu pribatua erabiltzeko lizentziaren kopia edo testigantza, edo hura eskuratzeko egindako eskaerarena, tramiteak aldi berean egiten ari badira.

2.-a) Lokalaren jabetzaren eskriturak, altxatu beharreko ibilgailua lokalaren jabearen bada.

b) Ibilgailuaren jabearen aldeko alokairu kontratua, lokalaren edo aparkatzeko plazaren jabe ez bad(ir)a.

3.-Garaje edo aparkalekuko plazen titularren zerrenda.

4.-Bertze xederen bat duten negozio lokalak direnean, txosten labur bat erantsiko da, bertan gauzatzen den jarduerari buruzkoa, zehazturik banaz bertze zenbat ibilgailu sartu eta ateratzen diren bertatik egunean.

5.- Etxegintzaren Kode Teknikoa eta ordenantza honetan ezarritakoa betetzen dela frogatzen duen ziurtagiri teknikoa.

### ***Lizentziaren baldintzak***

8. artikulua.

Pasatzeko lizentziak eman, indarra izan eta haietaz baliatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

### **A.-Ibilgailuak altxatzeko lokalak.**

1.-Lokal edo tokiaren benetako edukiera eta erabilpena, gutienez, bi turismorendako izatea, edo 850 kg-tik goitiko karga-ahalmena duen garraio-ibilgailu batendako.

2.-Haiendako baizik ez den espazioa gutienez ere 20 m<sup>2</sup> izatea ibilgailu bakoitzarendako, eta ibilgailu, sarbide eta korridoreetarako eremua ibilgailuak aparkatzeko, sartzeko eta ateratzeko maniobrak bakoitzak bere abere aldetik eta gainerako ibilgailuei erreserbatutako espazioan sartu gabe egiteko maneran.

Ibilgailu bakoitzarendako erreserbatutako espazioa (garaje-aparkalekuko plaza) laukizuzena izanen da, gutienez ere 2,50 x 4,70 metroko luze-zabalak dituen, oztoporik gabe neurtuak.

Bidaiari minusbaliatuak eramaten dituzten ibilgailuen garaje-aparkalekua denean, plazak 2,90 x 4,70 metroko laukizuzena izanen da gutienez.

Lokalean sartzeko ateak barne aldera irekiko dira, eremu publikoan sartu gabe. Ateak berdin onartuko dira baldin eta, barnealdera irekirik, haien goialdea hasten bada fatxadaren lerrotik ateratzen gutienez ere 2 metrotik goiti, espaloiko edo karrikako edozein tokitatik neurtuta.

Erranak erran, oinezkoendako karraketan (Egaibar, Julio Ruiz de Alda, Chapitel, Nabarrera, Carpintería, Puy, Tecendería, Zezenen kalekka, Rua, San Nikolas, Juan de Labrit, Santiago plaza (Entrañas aldapa), eta Herreros kalekka), eta mugikortasun murriztua duten pertsonendako garaje-aparkalekuen kasuan, aski izanen da lokalaren edo tokiaren benetako edukiera eta erabilpena turismo batendako izatea, harexendako bakar-bakarrik eta ez 20 m<sup>2</sup> baino tikiagoa.

Hori egiaztatzeko, ikuskapenean lokaleko zoruan markatuko da ibilgailu bakoitzarendako tokia (garaje-aparkalekuko plaza), artikulu honetan ezarritako luze-zabalekin bat eta eskabidearen arabera.

3.-Lokalean 5 ibilgailu baino gehiago altxatzen ahal badira edo haren azalera erabilgarria 150 m<sup>2</sup> baino gehiago bada, jarduera sailkatuen espedientea tramitatu beharko da edozein lizentzia eman baino lehenago.

-Ziurtagiri teknikoaren gutieneko edukia:

1) Txostena: Etxegintzaren Kode Teknikoa eta ordenantza honetan ezarritakoa betetzen dela frogatzen duena.

2) Planoak: a) Eraikinaren edo eremuaren kokapenaren planoak.

b) Lokalaren eskalako planoak, honako hauek zehazten dituenak: ibilgailu, sarbide eta korridoreei gorderiko lekua, atearen zabalera eta lokalean dauden oztopo finko guztiak, maniobrak zailtzen ahal badituzte (zutabeak, barneko lokalak, eskailerak, etab.).

c) Lokalaren eskalako planoak, honako hauek agertzen dituenak: ibilbideak, suteen kontrako instalazioak, aireztapenak, etab.

Hona suteen kontrako gutieneko neurriak:

-Su itzalgailu 1, 2 Kg CO<sub>2</sub>-koa, koadro elektrikoan.

-Su itzalgailu balioaniztun 1, 21A 113B eraginkortasuneko, tamaina honetan: 1,2 kg gai itzaltzaile lokaleko 10 m<sup>2</sup> edo horren zati bakoitzeko. Su itzalgailu bakarra izanez gero, sarbidetik hurbilena paratuko da.

-Larrialdietan seinaleak egiteko aparatu 1, ateratzeko ateen gainean eta su itzalgailu balioaniztun bakoitzaren gainean.

-Suteen kontrako neurri bakoitza bere errotuluarekin seinalaturik egonen da.

### ***B.-Merkataritza eta industria erabilerako lokalak, adiera zabalean hartuta.***

1.-Jardueraren ezaugarri orokorreatatik, ibilgailuen ohiko sar-aterak nahitaezkoa izatea.

2.-Gutierrez 40 m<sup>2</sup>-ko tokia izatea, libre eta gau eta egun ibilgailu horietarako edo horien zamalanetarako erabiltzen dena.

3.-Ibilgailuak konpontzeko tailerrak direnean, eskatzen den azalera librea 25 m<sup>2</sup> baizik ez da.

Pasatzeko lizentzia hauek emateak xede publikoa duenez, eman ondotik erabakia bertan behera utziko da baldin eta egiaztatzen bada zamalanik egiten dela dagokion lokaletik at eta erabilera publikoko eremu edo gunean, lizentziaren onuraduna den jarduera edo titularraren fabore.

### ***C.-Familia bakarreko etxebizitzak HAPOk araututako eremuetan.***

1.-Eremuak familia bakarreko etxebizitzetarako antolamendua izatea, eta gisa hartara eraikia.

2.-Eremu publikoan halako jarduketa batzuk egiteko murrizketa nabarmenik ez ekartzea.

3.-Familia bakarreko eremu pribatiboaren barnean aparkatzeko tokia izatea.

### ***Murrizketak***

9. artikulua.

Lizentzia bakar bat ematen ahalko da, sei metrokoa gehienez ere, lokal bakoitzeko, lokala izanik unitate fisiko bat, fabrika-obra bertzeko tarte batzuen bidez guztiz eta modu iraunkorrean isolatua.

Salbuespenetan eta arrazoitutako kasuetan bakarrik ahal izanen du Udalbatzak muga hori gainditu.

Interes publikoaren mesede lizentzia hauek murriztaileak direnez, ahal dela lokal hurbil edo ondoko-ondokoetarako sarbidea (bereziki titular berarenak direnean) pasabide bat bakarretik egiten da. Horrek ez du erran nahi hartaz baliatzen den pertsona fisiko edo juridiko bakoitzak pasatzeko behar den lizentzia eskuratu behar ez duenik, ezta espaloiak eta zintarria lehengoratzeko erantzukizun solidarioa ez duenik.

### ***Baldintzak aldatzea***

10. artikulua.

Pasatzeko lizentziak murrizketarik ez dakarrenean aparkaleku publikoan, Udalak aurreko baldintzak aldatzen ahalko ditu berak nahi bezala eta arrazoituta, egoerak dirauen bitartean.

### ***Seinaleak***

11. artikulua.

Pasatzeko lizentzia ezarri nahi den tokian ibilgailuak gelditzea edo egotea baimendurik baldin badago, lizentziarekin batera bertatik pasatzeko debekua etorriko da, eta debekua adierazteko arauzko diskoak paratuko dira, lokal edo gune pribatuko sarbidearen bi aldeetan. Haietan, gelditzeko edo aparkatzeko debekuak zer ordutegi duen, edo gau eta egunekoa ote den agertuko da. Pasabide baimenduaren zabalera tartean utzita paratuko dira diskoak, %+-20ko tolerantziarekin, eta Zirkulazio Kodeak eskatzen duen garaieran (171. art.).

Udalak emanen ditu behar diren diskoak, dagokien tasa ordaindu ondotik, baina titularraren kontura geldituko dira haiek beren tokian paratu, zaindu eta mantentzeko lanak, eta Udalari itzuli beharko zaizkio pasatzeko lizentzia kendu edo baliogabetuz gero.

Zirkulazio Kodeak agindu bezala, zerrenda zuri-gorritz pintatu beharko da zintarria edo horren ordeztar bidean dagoena. Lizentziaren titularraren kontura izanen da hasieran pintatzea, baita orbanik gabe mantentzea ere, haren betebeharra baita.

"Gau eta egunekoa" edo dagokion ordutegia idazteko lana ere esleipen hartzailearen esku geldituko da, emandako lizentziaren arabera; marra lodiz eta letra edo zenbakien tamaina orokor txikiena 2 x 2,5 zentimetrokoa izanen da, ongi ikusteko moduko kolore beltzez. Idazpen hori debekuko diskoaren eredu ofizialak azpian erantsia daraman laukian egin beharko da.

### ***Ordutegia***

12. artikulua.

Parean aparkatzea debekatzen duten pasatzeko lizentziak ordutegi mugaturako nahiz gau eta egunerako eman daitezke.

1.-Ordu jakin batzuetarako lizentziek, ibilgailuak pasatzeko baimena emanen dute gehienez ere 10 orduz egunean, jaiegunetan izan ezik, non eta ez den horietarako ere akordioaren bat. Interesdunak eskatu beharko du zer ordutegi nahi duen, gehieneko muga horren barrenean.

Ordu jakinetarako lizentzia horiek arau orokorra dira merkataritzako eta industriako establezimenduentzat, egonaldiko aparkalekuak ez badira.

2.-Gau eta eguneko lizentziak kasu bakan eta ezinbertzekoetan baizik ez dira emanen, konparaziorako, larrialdi zerbitzuentzat eta ibilgailuendako garajeak direnean eta Udalaren iritziz behar hori nahitaezkoa badute.

### ***Sarbideetan aparkatzea***

13. artikulua.

Debeku da lizentziak ukituriko eremuan ibilgailua utzi, gelditu edo aparkatzea; onartuko da, soil-soilik, gidaria ibilgailuaren barnean bada go eta, eskatzen zaionean, berehala kentzen bada handik, pasabidearen erabileraren arabera eta betiere harentzat ezarrita dagoen ordutegiaren barnean bada.

Seinaleak behar bezala paratu eta zaindurik ez badaude, agindua dagoen gisan, Udalak eta udaltzainek ez diete bertan adierazitakoarengatik babesik emanen, ez zehapenak ezartzeari dagokionez, ez ibilgailuak nahitaez handik kenduz; horretaz gain, pasatzeko lizentzia kentzeko arrazoia izan daiteke.

### ***Zoruan eragindako kalteak eta erantzukizuna***

14. artikulua.

Pasatzeko lizentziaren titularra bera da, objektiboki, erabilera publikoko zoru edo zintarriak jasan dezakeen kalte ororen erantzule. Horregatik, Udalak edo Alkatetzak eska dezakete hura konpondu, sendotu edo nahi den pasagunerako egokitzeko, bai lizentzia eman aurreko baldintza gisa, bai lizentzia eman ondoko edozein unetan. Jardueraren titular berria edo lagapen hartzailea edo lokal edo tokiaren jabea, horrelakorik bada, harekin batera izanen da erantzule aipatu ondorio horietarako, amankomunean eta solidarioki.

### ***Zintarria edo "pasabidea" oketsa egitea***

15. artikulua.

Espaloiko zintarria edo gisakoa (pasabidea, laburki) aldatzen denean edo oketsa egiten zaionean, ez da fatxadaren eta espaloiareneko arteko elkargunean den sestra ofiziala aldatuko, eta ez da eskatuko baldintza gisa ez erabiltzeko ez pasatzeko lizentzia eskuratzeko, ondoko kasuetan izan ezik:

- 1.-Turismo motako hamar ibilgailu edo gehiagoko edukiera duten lokal edo eremuak direnean.
- 2.-Autobusak edo kamioiak bertan sartu, altxatu eta edukitzeko lokal edo eremuak direnean, zein den ere haien kopurua.
- 3.-Udalak edo Alkatetzak, salbuespenez eta behar bezala arrazoiturik, kasu berezietarako horrela erabakitzen dutenean.

16. artikulua.

"Zintarriko oketsa" hirian ohi den eredu edo diseinuari lotuko zaio; betiere, lizentzia berariazkoa beharko du bai pasatzeko lizentziarekin batean bai aparte eskatzen denean.

### ***Lehengoratzeko fidantza***

17. artikulua.

Pasabidea egiteko lizentzia eraginkorra izan dadin, eskatuko da fidantza edo eskudirua Udalaren Diruzaintzan jartzeko, lehengoratzeari bermatu beharrez. Udal Zerbitzuek zenbatetsiko dute eta haren zenbatekoa eskatu eta mantenduko da, %50 gehituta.

(Urtero ezarri beharko da fidantzaren zenbatekoa).

## ***Tasa ordaintzea eta fidantza jartzea***

18. artikulua.

Pasabiderako lizentziak emateko, pasatzeko lizentzian dituen ondorioei edo eraginari begiratuko zaio; gainera, tasa ordaindu beharko da eta gordailua egin hura eskuratu dela jakinarazi ondoko hilabete naturalean.

Epe bera aplikatuko da gordailuaren zenbatekoa eguneratzeko eskatzen denean.

Betiere, lizentziaren eraginkortasun falta ukatu gabe, nahitaezko diru-bilketara jotzen ahalko da diru kopuru horiek ordainarazteko.

### ***Erantzukizuna***

19. artikulua.

Lizentziaren titularraren kontura eta ardura izanen da pasabidea egitea eta orobat hura kentzea; harekin batera, jardueraren titular berriaren edo lagapen hartzailearen ardura edo lokal edo tokiaren jabearen ardura ere izanen da kentzea, amankomunean eta solidarioki, hala egin behar denean.

### ***Udalaren ordezkoko betearazpena***

20. artikulua.

Bai pasabidea kendu eta zintarria lehengoratzeko kasuan, bai nahitaezkoa izateagatik pasabidea bera egitean, Udalak obra egin dezake ordezkoko betearazpenean aitzinetik errekerimendurik egin behar izan gabe. Halakoetan, zuzenean fidantzaren kontura egingen du eta fidantzarik ez badago edo dirurik aski ez, arduradunari zuzenean ordainaraziko zaio haren borondatez edo, bertzenaz, premiamendu bidez.

Paratzen diren disko seinaleak eta zintarriko pintura ere ken eta deusezta ditzakete udal zerbitzuek, aurretik gaztigurik egin gabe, pasatzeko lizentzia edozein arrazoirengatik indarrrik gabe gelditzen bada edo lizentzia eraginkorra izateko baldintzak betetzen ez badira.

## **HIRUGARREN ATALA**

### ***Toki erreserbak eta murriztapenak***

21. artikulua.

Ordenantza honetako 2.etik 5.era bitarteko artikuluetan tokia erreserbatzeko aurreikusitako lizentziak hagitz kasu mugatuetan baizik ez dira emanen, eta betiere emate hori trafiko edo ibilgailuen joan-etorriarentzat mesedegarri, eragozpenak kentzeko baliagarri edo nolana ere onuragarri gertatuz gero, interes publiko orokorrari begira.

### ***Debekua***

22. artikulua.

Halako toki zehatz mugatuetan ezin izanen dira inola ere ezarri ibilgailua gelditu edo aparkatzeko debekaguneak, erresebatzeak duen xedea bete dezaketenak, jarduera edo lokal jakin batzuen mesedetan.

### ***Eskaera eta agiriak***

23. artikulua.

Tokia erresebatzeko lizentziak eskatu nahi izanez gero, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- 1.-Eskariaren xedea zehazten duen eskabidea, onura jasoko lukeen jardueraren titularrak sinatua.
- 2.-Eskatzen den erreserba beharrezkoa eta trafikoarentzat oro har nahiz interes publikoarentzat onuragarria dela egiaztatzeko txosten mardula.
- 3.-Planoa, erresebatzeko eskatzen den toki ahalik eta zehatzen adierazi eta mugatzen duena.

### ***Tramitea eta ebazpena***

24. artikulua.

Udalaren Gobernu Batzordeak behar den erabakia hartuko du, txosten teknikoak ikusirik. Hirigintzako zerbitzuek eta Udaltzaingoa emanen dituzte txosten horiek.

### ***Lizentziaren baldintzak***

25. artikulua.

Udalak bere aldetik erabakitzen dituen baldintzak paratzen ahal ditu ematen den lizentziari dagokionez eta emate hori berritu edo bere aprobetxamendua aldatzen ahalko da noiznahi eta kalte-ordainik izan gabe.

Hala ere, orokorrean, honelakoetan ez da pasatzeko lizentziarik emanen, ezta aparkatzeko erresebarik ere:

- 1.-Aparkatzeko toki batzuetan, dauden urbanizazio edo espazio publikoan aparkatzeko dagoen estandarra betez behar bezala seinalaturik edo ezarririk badaude, eta bertan Lizentziek aparkatzeko edo gelditzeko debekua ekartzen badute.
- 2.-Halako etxabe edo lokal batzuetan, harendako lizentzia eskatuagatik ere, hartarako sarbideak nahitaez ekartzen badu oinezkoendako pasabideetan, berdeguneetan, jostatzeko guneetan eta abarretan barna pasatzea.

### ***Seinaleak***

26. artikulua.

Seinaleak paratzeko gastu guztiak eskatzailearen gain geldituko dira, eta hori izanen da, baita ere, seinaleak behar bezala mantentzeaz arduratuko dena.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK**

27. artikulua.

Inguruabar bereziek beharrezko egiten badute, trafikoa antolatzeko behar diren neurriak hartzen ahal dira, ibilgailuen zirkulazioa debekatuz nahiz murriztuz, edo sarbideak hiriko alderdi batzuetara eta halako bide batzuetatik desbideratuz, baita aparkalekuak berrantolatuz ere.

28. artikulua.

Herriko alde bateko ezaugarri bereziak kontuan hartuz, udal administrazioak debekatzen ahalko du osoki edo partez ibilgailuen zirkulazioa edo aparkamendua, edo biak batera alde horren barneko eremu publiko guztiak edo batzuk erreserbatu ahal izateko bertako bizilaguntzentzat, eta, oro har, auzo, oinezko edo bertzela irizitakoentzat.

29. artikulua.

Halakoetan, karriek behar diren seinaleak beharko dituzte sarreran eta irteeran, eta gainera, delako aldean ibilgailuen joan-etorriak eragotziko dituzten elementu mugigarri nahiz finkoak erabiltzen ahalko dira.

30. artikulua.

Aipatutako murriztapenak izaten ahal dira:

- 1.-Beren perimetro barreneko bide guztietarako edo batzuetarako bakarrik.
- 2.-Aurretiaz ezarritako ordutegi batera mugatuak ala ez.
- 3.-Egunerokoak edo egun jakin batzuetarako bakarrik.

31. artikulua.

Zein den ere mugapenaren izaera eta norainokoa, ez dute eraginik izanen ibilgailu hauek zirkulatu eta aparkatzeko:

- 1.-Su itzaltze eta salbamendu zerbitzukoak, poliziakoak, anbulantziak, eta oro har, zerbitzu publikoak egiteko beharrezko direnak.
- 2.-Alde horretako eraikin batetik eri edo ezinduak garraiatzen dituztenak.
- 3.-Alde horretako ostalaritzako establezimenduetan, sartzeko nahiz ateratzeko, bidaiariak eramaten dituztenak.
- 4.-Alde horretan berean baimendutako garaje edo aparkaleku publiko nahiz pribatuen erabiltzaile direnak.
- 5.-Salgaien zamalanetarako baimena dutenak.

6.-Bertze batzuk, banan-banan aztertu beharrekoak, sarbide premia aitzinetik aztertuta.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Lehenbizikoa.-Alkatetzaren bando baten bidez ezarriko da aldi bakoitzean ibilgailu motordunak ibiltzeko murriztapenak zein eremu ukitzen dituen, aparkatzeko aldiak dituen mugapenak barne direla.

Bigarrena.-Orobat, Alkatetzaren bando baten bidez ezarriko da zer baldintza izan behar dituzten aitzineko murriztapenak ukitzen ez dituzten pertsonak, eta zer baldintza eta zer muga izanen dituzten zirkulatzeko eta gehienez ere aparkatzeko.

Hartan ari ahal izateko, behar den txartelez edo horretarako bidea eman duen sistemaz hornituko dira, behar den tasa ordainduta. Tasa hori aplikatuko zaie bai luzatzeko dauden txartel berriei bai banatuak direnei; onuradunek hilabeteko epea izanen dute, aditzera ematen zaienetik, tasa ordaintzeko.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

Lehenbizikoa.-Pasabideetarako egungo lizentziak, lehengo araudiarekin eman baitziren, bertzerik gabe baliokidetuko dira, udal zerbitzuek banan-banan egokitzapenak eskatzen ahal bazaizkie ere eta baliogabetzen ahal diren kontzesioak badira ere.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Bakarra.-Erregelamendu honek indarra hartzean indarririk gabe geldituko da Pasabideen gaineko Erregelamendua, Udalbatzak lehenago onetsi zuena, xedapen iragankorretanaurreikusi bezala.

## **ORDENANTZA, SUSTAPEN PRIBATUAREN BIDEZ ALDE ZAHARREKO ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA**

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da arautzea Udal honek ezarritako diru-laguntzak Lizarrako Alde Zaharrean Interes Kultureko Ondasun (IKO) deklaraturiko eremuaren barnean dauden eraikinetako elementu komunetan eta arkitekturaren edo ingurumenaren aldetik interesa izateagatik zehazten diren eraikinetan egiten diren obretarako.

Elementu komunak zaharberritzeko obren artean hauek daude, bertzeak bertze:

- a) Fatxadak konpontzeko lanak: balkoiak, moldurak, erlaitzak, teilatu-hegalak, teilatu-hodiak, zorrotanak, kanpoko zurgin-lanak, kanpo estaldurak.
- b) Estalkiak konpontzea: egitura, estaldura, tximiniak, luzernarioak, isolamenduak, etab.
- c) Berreraikuntzak, eraikinaren egituraren sendotzea eta indartzea.
- d) Eraikinaren instalazio orokorrak: saneamendu eta hornidurarako zutabeak; aireztatzeko hodiak; uraren, gasaren eta argindarraren kontagailuen zentralizazioa, igogailuak paratzea, etab.
- e) Lehenagoko bertze batzuen ondorioz egin behar diren obrak.
- f) Antolamendutik kanpora dauden eraikin edo eraikuntzak, eraikin nagusitik aparte daudenak, eraisteko obrak.

## 2. artikulua. Aplikazio eremua.

Laguntzak Lizarrako Alde Zaharrean Interes Kultureko Ondasun (IKO) deklaraturiko eremuaren barnean dauden eraikinetako elementu komunetan egiten diren obretan baizik ez dira aplikatuko, eta gutienez ere 25 urte badituzte eta etxebizitzan zaharberritze babesturako Nafarroako Gobernuak deitzen dituen laguntzetara bildu badira.

Orobat, laguntza hauek biltzen ahalko dituzte ondotik zehazten diren eraikinek, IKO eremutik kanpora egon arren:

- S. Andres karrika, 2, 4, 6, 8, 5 eta 5 bis.
- Coronación plaza, 2,3 eta 4.
- Sortzez Garbiaren pasealekua, 9.
- Nobeleta auzoa: La Cruz karrikako zenbaki bakoitiak eta baserria.
- Ordoizko baserria.

## 3. artikulua. Baldintza orokorrak.

Jarduketa eta obra guztietan koherentzia teknikoa eta eraikuntzazkoa bermatu beharko dira eraikinen kontserbazio egoeran, BBBPBaren araudiak, planeamenduak eta ordenantzek xedatzen dutenera egokitu eta eraikinaren erabilera, segurtasuna edo estetika hobetu.

A.-Hauek dira Udalaren laguntzak jaso ditzaketenak:

1. 1. artikuluan deskribatzen diren obrak, 2. artikuluan ezarritakoa betetzen badute eta Kontserbazio Araubidean deklaratuak badira.
2. 1. artikuluan deskribatzen diren obrak, 2. artikuluan ezarritakoa betetzen badute eta Berritze-Aldi baterako Kontserbazio Araubidean deklaratuak badira, betiere bolumen baldintzak (azalera eta garaiera) ez badira planeamenduak berritzeetarako ezarri baino handiagoak.
3. Mantendu beharreko elementuen gainean egindako obrak, BBBPBko haien fitxa partikularrari jarraikiz, Berritze Araubidean deklaraturiko eraikinetan, eta xedea haren kontserbazioa edo eraikin

berrian lehengoratzea badute.

B.-Laguntza hauetatik kanpo daude:

1. Etxebizitza edo lokaletako elementu pribatiboei dagozkien obrak, elementu komunen gainean egindako obren ondoriozkoak ez badira.
2. BBBPBak "antolamendutik kanpora" edo "Berritze-Aldi baterako Kontserbaziokoak" deklaratu dituen eraikinetan egiten diren obrak, A.2 atalean agertzen direnak kenduta, non ez diren Berritzekoak eta, beraz, A.3. atalekoak.
3. Zaharberritze obren barnean, antolamendutik kanpoko eraikin edo elementuak jasotzen ez dituztenak, BBBPBko araudira egokitzea erdo fatxaden jatorrizko diseinu eta tratamenduaren berreskurapena bilatzen dutenak edo fatxadako elementuetan eraikinaren kanpo estetikoarekin bat etortzen ez diren guztiak kentzen edo egokitzen ez dituztenak edo BBBPBaren araudia betetzen ez dutenak (pertsianetako kaxak, fatxadetako kableak, kartelak, idazkunak, markesinak, etab.).
4. Eraikina arrunt hustutzea edo haren fatxadetariko bat (nagusia edo patiora jotzen duena) eraistea edo egungo konposizioa aldatzea ekartzen duten obrak.
5. Eraikinen zaharberritzeak, haien helburua etxebizitzak sustatu eta saltzea bada.
6. Etxebizitza edo eraikinen zaharberritzearen sustatzaileak, baldin badaude Udalarekin zorrak izateagatik premiamendu bidez kobratzeko prozeduran, haiek kitatu direla egiaztatzen ez den bitartean. Eskabidea egiten den hilabete berean egin behar litzateke hori.

4. artikulua. Udalaren baliabide ekonomikoak.

Udalaren aurrekontuetan agertuko dira ordenantza honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoei aplikatuko zaizkien Udalaren baliabideak. Horiek aski ez badira diruz lagun daitezkeen zenbateko guztiei aurre egiteko, Udalak behar diren kontusailak sortuko ditu hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

5. artikulua. Laguntza ekonomikoen onuradunak.

Honako hauek dira Udalaren laguntzak eskura ditzaketanak, betiere ordenantza honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen badituzte:

- a) Etxebizitzen jabeak.
- b) Jabeen elkarteak, beren organo zuzentzaileak badira jarduketak bultzatzen dituztenak.
- c) Eraikinen jabeak, haietan etxebizitzen %70 baino gehiago alokairuan badituzte eta gutienez ere kontratuen %50ek gutienez ere 2 urteko antzinasuna badute.
- d) Eraikinen errentariak, Hiri Errentamenduei buruzko Legearen xedapenen arabera.
- e) Zaharberritzen diren eraikinetan kokaturik dauden saltokien jabe edo errentariak, baldin eta hauek zaharberritzearen kostuetan parte hartzen badute.

6. artikulua. Laguntza ekonomikoen zenbatekoa.

Diru-laguntza mota hauek daude:

-Lizentzian ordaindutako EIOZen pareko diru-laguntza.

-Obraren kontrataren aurrekontuari gehi teknikarien ordainsariak gehituta ateratzen den baturaren gaineko ehuneko bat, 7. artikuluan ezarri bezala.

Kontuan hartzen diren aurrekontu eta ordainsariak izanen dira zaharberritzeko laguntzak eskuratzeko eta ordenantza honetako 1. artikuluan agertzen diren eta/edo Udalaren Bulego Teknikoak zehazten dituen obretarako zenbatetsi direnak, aurrekontua aitzinetik berrikusita, hala behar badu.

7. artikulua. Laguntza ekonomikoak.

Laguntzak izanen dira Lizarrako Udalak onuradunei ordenantza honetan arautzen diren baldintzetan ematen dizkien diru-laguntza edo ekarpenak, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaizkionak aparte utzirik.

### **Zenbatekoak:**

Zaharberritzen diren etxebizitzak Kontserbazio Araubidean edo Berritze-Aldi Baterako Kontserbaziokoan dauden eraikinetan badaude eta 3A artikuluko baldintzak badituzte, zenbatekoak eskatzailearen errenta mailaren arabera zehaztuko dira, ondotik ematen diren ehunekoak aplikatuz obraren kontrataren aurrekontuaren gainean, gehi teknikarien ordainsariak.

Errenta maila zehazteko kontuan hartuko da errenta aitopeneko zergapeko egintzaren atal orokorrari errenta salbuetsiak gehitzearen ondoriozkoa, halakorik bada.

Ikus taula osoa

<b>Lanbide arteko gutxieneko soldata</b>	<b>2,5 baino gutxiago</b>	<b>3,5 baino gutxiago</b>	<b>3,5 baino gehiago</b>
Diru-laguntza teorikoa	%20	%15	%10
Etxebizitza bakoitzeko gehieneko diru-laguntza	920 euro	765 euro	600 euro

Pertsona juridikoen kasuan, kontuan hartuko da LGSa 3,5 halako baino gehiagoko diru-sarrera maila.

Fatxadaren tratamenduak lehengoratze jarduketak ekartzen baditu, tratamendu horren kostuak %55eko diru-laguntza jasoko du, eta gehienez ere 785 euro eraikin bakoitzeko.

Lehengoratze lan horiek zaharberritzeko bertze obra batzuekin batera egin behar direnean, diru-laguntza bildu ahal izateko kontusail berezietan aurkeztuko dira aurrekontuaren barnean.

Obrak egiten direnean Berritze Araubidean dauden eraikinetan dauden elementuetan, beren fitxa partikularren arabera hura kontserbatu edo berreskuratzeko xedez, laguntzak aurrekontuaren %55 izanen dira, eta gehienez ere 785 euro eraikin bakoitzeko.

Diru-laguntza aplikatu ahal izateko, obra hauek kontusail berezietan aurkeztuko dira aurrekontuaren barnean.

### ***Eraispenetarako laguntza bereziak:***

Antolamendutik kanpoko eraikin edo eraikuntzak eraisteko obrek laguntza hauek biltzen ahalko dituzte, BBBPBko haien fitxa partikularretan jasota badaude eta erakin nagusitik aparte badira. Halakoetan eraispenak ekartzen dituen gastuen %100eko diru-laguntza jasoko da, eta gehienez ere 3.000 euro.

#### 8. artikulua. Laguntzak galtzea.

Ordenantza honetako baldintzak eta betekizunak ez betetzeak, eta zehatz-mehatz, EEZBak edo UBtak beharrezkotzat jotzen dituzten obrak ez egiteak, baita aurkeztutako dokumentazioan edozein datu faltsutzeak, udal laguntzak deuseztatu eta kentzea ekarriko du kasuan kasuko espedientean.

Laguntzak bat bakarrari deuseztatzen edo kentzen ahal zaizkio, jabe elkarteren batean bat bakarria baldin bada baldintzaren bat bete ez duena.

#### 9. artikulua. Laguntzen tramitazioa eta ordainketa.

Ordenantza honetan jasotako zaharberritzeetarako direnean, Udalari aurkeztuko zaizkio laguntza ekonomikoen eskaerak, agiri hauek erantsita:

-Laguntzaren eskabidea.

-Zaharberritze babestuaren behin betiko kalifikazioa.

-EEZBaren laguntzak eskatu diren urteko errenta aitortpena.

-Banku entitatea eta, dirulaguntzak zer kontutan eskuratu nahi diren, haren zenbakia.

-Jabe elkarteren akordioa, non adieraziko baita obrak egitea erabaki dutela, laguntzen espedientea kudeatzeko ordezkari bat izendatu dutela eta jabe bakoitzak obran duen portzentajea.

Eskatzailea norbaiten ordezkari bada: horren ziurtagiria.

Udaleko zerbitzu tekniko eskudunek edo haiekin parekatutakoek inoiz eska ditzaketan agiri osagarriak.

Obra berak egiteko laguntzak eskatu edo lortu badira edo geroago eskatzen badira, zer erakunderi, zenbat aldiz eta zenbat eskatu dion zehaztu beharko da ordenantza honetako diru-laguntza eskatzen denean eta hura eman baino lehen, baita zenbat eman zaion ere, hala gertatzen denean.

Orobat, kontuan harturik diru-laguntza publikoak ez daitezkeela inoiz irabazpide izan, gauza bera egiteko bertze diru-laguntza batzuk hartzeak ekartzen ahal du udal diru-laguntza murriztea edo haren zenbatekoa itzuli beharra.

Behin betiko kalifikazioa eskuratu ondoko hilabetean eginen dira eskaerak.

## **AZKEN XEDAPENAK**

Lehenbizikoa.-Ordenantza honen interpretazioa Udal honena da ez bertze inorena.

Bigarrena.-Udalak obrak behar bezala egiten direla begiratzen ahal du noiznahi.

Hirugarrena.-Ordenantza honetan ezarritako diru-laguntza bateraezina izanen da gauza bera egiteagatik Udaletik eskuratzen den bertze edozeinekin. Gauza bera egiteko bertze diru-laguntza batzuk hartzeak ekartzen ahal du udal dirulaguntza murriztea edo haren zenbatekoa itzuli beharra.

Iragarkiaren kodea: L0910347